

berria

Gizartea >

SAGARDO DENBORALDIA

Abian da txotx garaia

'Loreak' filmeko hiru protagonistek eman diote hasiera. "Orekatua, txinpartaduna eta edanerraza" izango da aurtengo sagardoa, sagardozelek jakinarazi dutenez. Guztira 10 milioi litro ekoitzi dituzte. **Bideoa: txotx garaiaren hasiera (Lara Madinabeitia, BerriaTB).**

2015-01-14 / Ainara Arratibel

Pozik eta eskertuta" eman diote hasiera aurtengo sagardo denboraldiari *Loreak* filmeko hiru protagonistek: Itziar Ituñok, Nagore Aranburuk eta Itziar Aizpuruk. Ohiturari jarraituz, haiek izan dira sagardoa dastatzen lehenbizikoak, gaur eguerdian Astigarragako (Gipuzkoa) Bereziartua sagardotegian egindako ekitaldian. "Primerakoa" zegoela adierazi dute. Aurretik sagarrondo bat landatzeko aukera izan dute hiru aktoreek.

Bertan jakinarazi dituzte aurtengo uztaren ezaugarriak sagardozaileek. "Orekatua, txinpartaduna eta edanerraza" izango da aurtengo sagardoa, Sagardun elkarteko lehendakari Jose Angel Goñik nabarmendu duenez. Guztira 10 milioi litro ekoitzi dituzte, %45 hemengo sagarrekin.

0 iruzkin**Berria** **Saioa hasi** ▾

Berrietik hasita ▾

Partekatu  Gogokoena ★

Izan zaitetz lehena iruzkina argitaratzen.

 Harpidetu Gehitu Disqus zure webgunera Pribatutasuna